



Urretxu-Zumarraga Ikastola 2021-2024 Plan Estrategikoa



Sarrera

Urretxu-Zumarraga Ikastolak egunerokotasunetik begirada jaso eta epe ertain-luzeko ikuspegiarekin lan egin du #etorkizunaehunduz prozesuan. Etorkizuneko Ikastola egungo inertzien eta joera nagusien ondorio izan ordez, denon artean kontzienteki erabakitakoa eta eraikitakoa izatea du helburu eta Ikastolak garrantzia eman dio etorkizuneko eszenatoki hori hezkuntza komunitatearekin pentsatzeari eta disenatzeari. Plan Estrategikoak Ikastolaren eguneoko kudeaketarako baliagarri izango den erreferentziazko marko sendoa izatea nahi du. Hezkuntza komunitatea osatzen duten eragileekin batera landutako Plan estrategikoa oinarri sendoa da Ikastolaren oraina zein etorkizuna kudeatzeko, epe luzerako norabidea eta ikastetxe ereduaren inguruko iparra definitzen duelako eta Ikastolarentzat funtsezkoa izango duen ibilbide-orria edo erreminta bihurtzen delako.

Txosten honetan jaso de Plan Estrategikoa burutzeko, prozesuaren gidaritza izan duen Talde Eragilea izendatu alde batetik. Bestetik, Ikastola osatzen duten eragile desberdinen ordezkariekin osatutako Hausnarketa Batzordea eratu da. Talde hauek beren bileretan egoeraren diagnostikoa ezagutzeko Hezkuntza Komunitateari pasatako galdetegietatik abiatuta 4 lan-arlotan banatutako plana osatu da. 1) Eredu pedagogikoa; 2) Partaidetza, informazioa eta komunikazioa; 3) Antolaketa eta egitura; 4) Identitatea eta herri-kohesioa lantzea. Lan-arlo horietako bakoitzak barne hartzen ditu bere helburu estartaegiko, lan.ildo eta ekintzak, horietako bakoitza planak indarrean iraungo duen ikasturteetan zehar banatuta eta arduradunak izendatuta dituelarik. Era berean, Plan Estrategikoaren betetze maila urtez-urte baloratuko da, ikasturte bakoitzaren bilakaerak hurrengoetarako hobekuntza-plana bideratzeko.

Amaitzeko prozesuan parte hartu duten pertsoneri eskerrak ematea geratzen zaigu. Guztion ahalginaren emaitza da hurrengo ikasturteetan indarrean izango dugun Plan Estrategikoa. Etorkizuna ehunduz oinarri sendo baten gainean eraikitzeko bidea martxan da beraz.

1.- Eredu pedagogikoa

| HELBURU ESTRATEGIKOA | LAN-ILDOA | EKINTZAK | KRONOGRAMA | | | | ARDURADUNA(K) |
|---|---|--|------------|----|----|----|-----------------------|
| | | | 21 | 22 | 23 | 24 | |
| 1.1 Konfiantzaren Pedagogiaren lan-ildo jarraitua bermatzea | 1.1.1 Batzorde Pedagogikoaren garapena | 1.1.1.1. Etapa guztietako kidez osatutako Batzordea sortu eta martxan jartzea modu sistematikoan. | x | | | | Zuzendaritza Taldea |
| | | 1.1.1.2. Hezkuntza proiektua berridaztea. | | | x | x | Batzorde Pedagogikoa |
| | | 1.1.1.3. Proiektuen jarraipena eta koherentzia bermatzeko estrategiak sortzea eta ezartzea | x | | | | Batzorde Pedagogikoa |
| | | 1.1.1.4. Hausnarketa eta eztabaida pedagogikoak bideratzeko guneak sortzea hezkuntza komunitateari begira | | x | | | Batzorde Pedagogikoa |
| | | 1.1.1.5. Etapen arteko loturak eta fluxuak arintzea, bilera sistematikoen bidez. | x | | | | Etapetako arduradunak |
| | 1.1.2 Konfiantzaren Pedagogiaren inguruko formazioa | 1.1.2.1 Konfiantzaren pedagogian (aditu-aholkulari) figura sortzea, Batzorde pedagogikoko kidea izango dena. | x | | | | Batzorde Pedagogikoa |
| | | 1.1.2.2 Etapa bakoitzerako irakasleen formazio plana diseinatzea eta gauzatzea. | x | | | | Batzorde Pedagogikoa |

1.- Eredu pedagogikoa

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|--|---|---|
| | | 1.1.2.3. Gurasoentzat formazio plana diseinatzea eta gauzatzea. | | x | x | | Batzorde Pedagogikoa | |
| | 1.1.3 Konfiantzaren Pedagogiaren inguruko diseinuak | 1.1.3.1. Etapa guztietan Konfiantzaren Pedagogian oinarritutako diseinuak eraikitzea. | x | x | x | | Etapetako arduradunak | |
| | 1.1.4 Ebaluazio berriaren inguruko hausnarketa eta ezarpena | 1.1.4.1. Ebaluazio orokorraren gaineko hausnarketa abiatu eta ebaluazio berrirako lehen urratsak jartzea. | x | | | | | Etapetako arduradunak Batzorde Pedagogikoa |
| | | 1.1.4.2. Ebaluaziorako erabiliko diren tresnak definitzea. | | x | | | | Etapetako arduradunak |
| 1.1.4.3. Irakasleen ebaluaziorako baliabideak diseinatu eta ezartzea: autoebaluazioa, koebaluazioa, ikasleek egindako ebaluazioa. | | | | | x | | Etapetako arduradunak | |
| 1.2 Ikastolako lerro metodologikoak ezartzea | 1.2.1 Proiektuetan oinarritutako ikaskuntza | 1.2.1.1. Diziplina arteko proiektuak sortzea ikasmila guztietan. | x | x | | | Etapetako arduradunak Etapetako irakasleak | |
| | | 1.2.1.2. Etapa arteko proiektu bana sortzea HH-LH, LH-DBH eta DBH-Batxi. | | | x | | Etapetako arduradunak Etapetako irakasleak | |
| | | 1.2.1.3. Ikasgeletatik haratago doazen proiektuak bideratzea gizartearekin eta gizarterako. | | | | | x | Etapetako arduradunak Etapetako irakasleak |
| | | 1.2.1.4. Adimen anitzen lanketa etapa eta diziplina guztietan lantzea. | | | | | x | Etapetako arduradunak Etapetako irakasleak |

1.- Eredu pedagogikoa

| | | | | | | | |
|--|--|--|---|---|---|---|---|
| | 1.2.2 Hezkuntza kooperatiboa | 1.2.2.1 Sortutako diseinuetan hezkuntza kooperatiboko teknikak txertatzea. | x | x | x | x | Etapetako arduradunak Batzorde Pedagogikoa |
| | 1.2.3 Pentsamenduaren kultura | 1.2.3.1 Unitate didaktikoetan motxila didaktiko-pedagogikoan jasotako estrategiak aplikatzea | x | x | | | Etapetako arduradunak Batzorde Pedagogikoa |
| | 1.2.4 Heziketa emozionala | 1.2.4.1. Kudeaketa emozionalaren programa garatzea, lotura emozional kontzientea. (VEC/LEK). | x | | | | Zuzendaritza Taldea |
| | | 1.2.4.2. Kudeaketa emozionalaren kultura ikas komunitate osoari zabaltzea. | x | | | | Zuzendaritza Taldea |
| | | 1.2.4.3. VEC/LEK programaren protokoloak ezartzea (ACOGIDA, ...). | x | x | | | Zuzendaritza Taldea |
| | 1.2.5 Garapen iraunkorrerako hezkuntza (GIH) | 1.2.5.1. UZ Ikastola Unesco eskola elkartuko kide aktiboa izatea. | | | | x | Zuzendaritza Taldea Agenda 2030 Taldea |
| | 1.2.6 Tutoretza-plana | 1.2.6.1. Tutoretza eredu desberdinak aztertzea. | | x | | | Orientazio Taldea |
| | | 1.2.6.2. Tutorearen perfila eta zereginak berrikustea. | | | x | | Orientazio taldea Tutoreak |
| | | 1.2.6.3. Ikasleei arreta pertsonalizatua eskaintzeko tutoretza proiektua eraikitzea. | | | | x | Orientazio Taldea Batzorde Pedagogikoa |
| | 1.2.7. Aniztasunaren trataera | 1.2.7.1. Aniztasuna tratatzeko urtean urteko plana diseinatzea. | | | x | | Zuzendaritza Taldea |

1.- Eredu pedagogikoa

| | | | | | | | |
|---|---|--|---|---|---|---|----------------------|
| | | 1.2.7.2. Etapa guztietarako ekintzak proposatzea, etapa bakoitzean bere mailan: ipuinak, eztabaidak, etab. | | | x | | Etapetako Irakasleak |
| | | 1.2.7.3. Gaien inguruko formazioa burutzea irakasleentzat eta familientzat. | | | x | | Zuzendaritza Taldea |
| 1.3. Euskaltzaletasuna eta euskararen erabilera indartzea | 1.3.1. Ikastolako Hizkuntza-politikaren errebisioa | 1.3.1.1. Gaur egungo Hizkuntza-Proiektua berrikustea. | x | | | | Hizkuntza Batzordea |
| | 1.3.2. Hobekuntzarako formazioa | 1.3.2.1. Langileentzat euskara hobetzeko formazioa eskaintzea. | | | x | | Hizkuntza Batzordea |
| | | 1.3.2.2. Ikasleen euskararen erabilera indartzeko ekintzak diseinatzea. | | x | | | Hizkuntza Batzordea |
| | | 1.3.2.3. Familientzako euskararen ezagutza eta erabilera bultzatzeko ekintzak eskaintzea. | | | x | | Hizkuntza Batzordea |
| | 1.3.3. Euskaraz ez dakiten ikasleen murgiltze integrala | 1.3.3.1. Murgiltze plana diseinatu eta martxan jartzea. | | | | x | Hizkuntza Batzordea |
| | 1.3.4. Aisialdia | 1.3.4.1. Ikastolak antolatzen dituen eskolaz kanpoko ekintzetan euskararen trataera egokia bermatzea. | | | x | | Hizkuntza Batzordea |
| 1.4. Euskararen ardaztutako eleaniztasuna | 1.4.1. Euskararen ikaskuntza-maila | 1.4.1.1. Ikasleek Ikastolan lortu behar duten euskara maila definitzea. | | x | | | Hizkuntza Batzordea |

1.- Eredu pedagogikoa

| | | | | | | | |
|--|---------------------------------------|---|--|---|---|--|--|
| | | 1.4.1.2. Hizkuntza Proiektuan landutako estrategiak sistematizatu eta ikasgelara eramatea | | | X | | Hizkuntza Batzordea Arloko Irakasleak |
| | | 1.4.1.3. Langileentzat irakurle taldea sortzea. | | X | | | Hizkuntza Batzordea |
| | | 1.4.1.4. Ikasleen irakurzaletasuna bultzatzeko ekintzak egitea. | | X | | | Hizkuntza Batzordea |
| | 1.4.2. Gaztelaniaren ikaskuntza-maila | 1.4.2.1. Ikasleek Ikastolan lortu behar duten gaztelania maila zehaztea. | | X | | | Hizkuntza Batzordea |
| | 1.4.3. Ingelesaren ikaskuntza-maila | 1.4.3.1. Ikasleek Ikastolan lortu behar duten ingeles maila zehaztea. | | X | | | Hizkuntza Batzordea |
| | | 1.4.3.2. Ikasgai gehiago ingelesez emateko aukera aztertzea eta martxan jartzea. | | | X | | Hizkuntza Batzordea |
| | | 1.4.3.3. Ingelesa indartzeko elkartrukeak ahalbideratzea. | | X | | | Arloko irakasleak |
| | | 1.4.3.4. Ahozotasuna eta ulermena lantzeko ingeles natiboekin ekintzak egitea. | | | X | | Arloko irakasleak |
| | 1.4.4 Frantsesaren ikaskuntza-maila | 1.4.4.1. Ikasleek Ikastolan lortu behar duten frantses maila zehaztea. | | | X | | Hizkuntza Batzordea |
| | | 1.4.4.2. Frantsesez egingo diren ekintza bereziak antolatzea gelan. | | X | | | Arloko irakasleak |

1.- Eredu pedagogikoa

| | | | | | | | |
|-------------------------------|---------------------------------------|--|---|---|---|--|------------------------------------|
| | | 1.4.4.3. Elkartrukeak edota Frantziar estantziak egiteko aukera aztertu eta martxan jartzea. | | | x | | Arloko irakasleak |
| 1.5 Digitalizaziora egokitzea | 1.5.1 Langileen kompetentzia digitala | 1.5.1.1. Ikasleen kompetentzia digitala bermatzeko langileen formakuntza diseinatzea. | x | | | | IKT Taldea |
| | | 1.5.1.2. Bestelako formazio beharrak identifikatu eta eskaintzea. | | x | | | IKT Taldea |
| | 1.5.2 Ikasleen kompetentzia digitala | 1.5.2.1. Ikasleen kompetentzia digitalaren denboralizazioa programazioetan txertatzea. | | | x | | IKT Taldea |
| | 1.5.3 Baliabide pedagogikoak | 1.5.3.1. Erabiltzen diren baliabide pedagogikoak jasotzea. | | x | | | IKT Taldea Batzorde Pedagogikoa |
| | | 1.5.3.2. Baliabide pedagogiko berriak esploratu eta eskaintzea. | | | x | | IKT Taldea Batzorde Pedagogikoa |

| HELBURU ESTRATEGIKOA | LAN-ILDOA | EKINTZAK | KRONOGRAMA | | | | ARDURADUNA(K) |
|---------------------------------------|--|---|------------|----|----|----|--|
| | | | 21 | 22 | 23 | 24 | |
| 2.1. Familien partaidetza bultzatzea. | 2.1.1. Ikastolako gurasoen errealitatea ezagutzea. | 2.1.1.1. Gurasoen interes eta inplikatzeke prestutasunaren/ahalmenaren inguruko datuak jasotzeko galdetegia pasatzea. | X | | | | Guraso kontseilua |
| | | 2.1.1.2. Galdetegiko erantzunetik abiatuta interes eta inplikatzeke prestutasunaren/ahalmenaren inguruko mapa osatzea. | X | | | | Guraso kontseilua |
| | | 2.1.1.3. Guraso berrientzako harrera plana diseinatzea | | X | | | Guraso Kontseilua |
| | | 2.1.1.4. Gurasoen beharrak identifikatu eta horiek aurrera eramateko bideak jartzea: heziketa formazioa (gatazken kudeaketa, kontsumoak, digitalizazioa...) | | | X | X | Guraso Kontseilua Zuzendaritza Taldea |
| | | 2.1.2.5. Gurasoen kezkak, galderak eta kontsultak bideratzeko bitartekoak zehaztea. | | X | | | Guraso Kontseilua |
| | 2.1.2. Guraso Kontseilua indartzea. | 2.1.2.1. Guraso kontseiluaren rola berraztertzea, taldea aktibatzea eta martxan jartzea | X | | | | Artezkaritza Kontseilua |
| | | 2.1.2.2. Guraso Kontseilua kideen errotazio-sistema sozializatzea. | | X | | | Guraso Kontseilua |

| | | | | | | | |
|--------------------------------------|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 2.1.2.3. Guraso Kontseiluak urteko plangintza egin, Plan Estrategikoarekin lerrokatuta. | x | x | x | x | Guraso Kontseilua |
| | | 2.1.2.4. Guraso Kontseiluko taldeari autonomia ekonomikoa eman (urteko aurrekontua zehaztu). | | | x | | Zuzendaritza Taldea |
| 2.2. Ikasleen partaidetza bultzatzea | 2.2.1. Ikasleen partaidetza bultzatzea. | 2.2.1.1. Ikasle Kontseilua sortzea: beraien beharrak, eskaerak, proposamenak... landuko diren gunea.. | x | | | | Ikasle ordezkariak |
| | | 2.2.1.2. Ikasleek Ikastola nahiz herriko behar eta erronken azterketa egitea eta eskuhartzeak diseinatzea | | | x | | Ikasle ordezkariak |
| | | 2.2.1.3. Ikastolako ekintzen diseinu eta antolaketan parte hartzeko aukera eskaintzea: egun esanguratsuetako ekitaldi, jaialdiak... | | x | | | Zuzendaritza Taldea |
| | | 2.2.1.4. Ikasleen ideiak/proposamenak jasotzeko bideak zabaltzea: jarraipen bilerak ikasle ordezkariekin, posta helbide bat, buzo-digitala... | x | x | x | x | Zuzendaritza Taldea Ikasle Ordezkariak |
| | | 2.2.1.5. Ikasleek hiruhilabeteroko maiztasunarekin Ikastolako berrien buletina egitea: DBHko aukera askeko ikasgai diziplinar-teako izan daiteke; hizkuntza eta IKTak | | | x | x | Ikasle ordezkariak |

| | | | | | | | |
|--|---|--|---|--|---|---|---|
| | | 2.2.1.6. Ikasleak beraientzat interesgarriak izan daitezkeen gaiak identifikatu eta horiek lantzeko adituak, sortzaileekin ekimenak antolatzea: hitzaldiak, antzerkia-foruma... | | | x | x | Ikasle Ordezkaririk |
| 2.3. Langileen partaidetza bultzatzea. | 2.3.1. Langileen partaidetza bultzatzea. | 2.3.1.1. Langile berrientzako harrera plana diseinatzea. | x | | | | Zuzendaritza Taldea |
| | | 2.3.1.2. Langileen arteko bide-laguntza: langile berriei erreferentziazko langile esperimentatuago baten erreferentzia eman, egunerokotasuneko gauza sinpleetan bidelagun izateko. | | | x | | Irakasleak |
| | | 2.3.1.3. Azpibatzordeak sortzea langile guztiekin, beraien interesen arabera: Batzorde pedagogikoa, HizPro, Komunikazio taldea, Agenda20/30... | x | | | | Irakasleak |
| 2.4. Barne-komunikazioa eta kohesioa indartzea | 2.4.1. Barne- komunikazio eta kohesioa indartzea. | 2.4.1.1. Irakasleek etapa guztietako errealitatea ezagutzeko fluxua erraztea. | x | | | | Etapetako arduradunak |
| | | 2.4.1.2. Komunikazioa arduraduna izendatzea. | | | x | | Zuzendaritza Taldea Komunikazio Taldea |
| | | 2.4.1.3. Komunikazio taldea osatzea, etapa eta lan arlo ezberdinetako kidez osatua. | x | | | | Zuzendaritza Taldea Komunikazio Taldea |
| | | 2.4.1.4. Gaur egungo komunikazio kanalak aztertu eta bakoitzaren helburua eta erabilera zehaztu. | | | x | | Komunikazio Taldea |

2.- Partaidetza, informazioa eta komunikazioa

| | | | | | | | |
|--|--|---|---|---|---|---|--------------------|
| | | 2.4.1.5. Komunikazio baliabideetan formazioa jaso. | | x | x | | Komunikazio Taldea |
| | | 2.4.1.6. Ikastolako berriak jasotzen dituen euskarria sortzea. | | | x | x | Komunikazio Taldea |
| | | 2.4.1.7. Hezkuntza komunitatearen kohesiorako momentu informalak antolatu: irteerak, bazkariak... | x | x | x | x | Irakasleak |

3.- Antolaketa eta egitura

| HELBURU ESTRATEGIKOA | LAN-ILDOA | EKINTZAK | KRONOGRAMA | | | | ARDURADUNA(K) |
|---|--|--|------------|----|----|----|-------------------------|
| | | | 21 | 22 | 23 | 24 | |
| 3.1. Antolaketa eredua berdefinitzea eta horren araberako egiturak sortzea. | 3.1.1. Organigramaren azterketa | 3.1.1.1. Hezkuntza komunitatearekin organigrama osatzen duten lantaldeak berdefinitu. | X | | | | Artezkaritza Kontseilua |
| | | 3.1.1.2. Hezkuntza komunitatearekin organigrama osatzen duten lantaldeen asebetetze maila neurtu. | X | X | X | X | Artezkaritza Kontseilua |
| | 3.2.2. Ardura bakoitzaren zereginen zehaztapena. | 3.1.2.1. Zuzendari eta Zuzendaritza- taldearen ardurak eta zereginak zehaztea. | X | | | | Zuzendaritza Taldea |
| | | 3.1.2.2. Arduradun pedagogikoaren ardurak eta zereginak zehaztea. | X | | | | Etapetako arduradunak |
| | | 3.1.2.3. Psikologo-orientatzailearen ardura eta zereginak zehaztea. | X | X | | | Orientazio Taldea |
| | | 3.1.2.4. Ardura postuetako trantsizioak ondo diseinatzea: harrera planak. Adibidez, Artezkaritzara sartzen diren gurasoentzako, irakasle eta langile berrientzako... | | | | X | X |

3.- Antolaketa eta egitura

| | | | | | | | |
|--|--|---|---|---|---|---|--|
| 3.2. Egituraren baitako ardurak definitzea. | 3.2.1. Lidergo-eredu partekatuaren definizioa. | 3.2.1.1. Lidergo-eredu partekatua definitzeko prozesua egin irakasleria osoarekin. | X | X | | | Klaustroa |
| | | 3.2.1.2. Egituraren arduradunak hautatzeko edo berresteko prozedura zehaztu | | | X | | Artezkaritza Kontseilua |
| 3.3. Langileen hautatze prozesua, jarraipena eta bide-laguntza sistematizatzea | 3.3.1. Langileen jardunaren optimizazioa. | 3.3.1.1. Hautaketa prozesua definitzea. | | X | | | Artezkaritza Kontseilua |
| | | 3.3.1.2. Langile berriak kontratatzerakoan langile profila kontutan hartzea. | X | X | X | X | Artezkaritza Kontseilua |
| | | 3.3.1.3. Ebaluazio sistematikoa burutzeko prozesua diseinatzea: autoebaluaziorako, heteroebaluazio eta koebaluazioaz baliatuz langileen egoera eta lanaren jarraipena egitea. | | X | X | | Zuzendaritza Taldea Artezkaritza Kontseilua |
| | | 3.3.1.4. Langileen garapen plana burutzea: formazio pertsonalizatua... | | | | X | Zuzendaritza Taldea |
| | | 3.3.1.5. Taldeko bilerak edota koordinazioarekin komunikatzeko foroak sistematizatzea: jarraipen bilerak egitea talde ezberdinekin. | X | X | X | X | Etapetako arduradunak |
| | | 3.3.1.6. Langileei asebetetze inkestak pasatzea maiztasun jakin batekin. | | X | | X | Zuzendaritza Taldea |

3.- Antolaketa eta egitura

| | | | | | | | |
|--|--|--|---|---|---|---|---|
| | | 3.3.1.7. Langileak hautatzeko prozesuari jarraipena egitea | | X | X | X | Zuzendaritza Taldea |
| 3.4. Eraikinetan eta inguruko espazioetan hobekuntzak egiten jarraitzea. | 3.4.1. Inbertsioak eta eskuhartzeak planifikatzea | 3.4.1.1. Ikastolaren bidagarritasun ekonomia bermatu eta horri begiratuko dioen kontuen analisia egin. | X | X | X | X | Zuzendaritza Taldea |
| | | 3.4.1.2 Diru-iturri berriak eta diru- laguntza lerroak aztertu eta aurkeztu (Europa, Eusko Jaurjaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia, Udala...) | X | X | X | X | Zuzendaritza Taldea |
| | | 3.4.1.3. Epe-ertaineko inbertsio-plana egin, lehentasunak ezarri eta jarraipena egitea: energia berriztagarriak, Lizeoaren zahar- berritzea (laborategia, tailerrak, soinketa-gela), estalpea... | X | X | | | Zuzendaritza Taldea Artezkari-tza Kontseilua Obra batzordea |
| | | 3.4.1.4. Urteko aurrekotua egiterakoan gastuen analisia egitea. | X | X | X | X | Zuzendaritza Taldea |
| | | 3.4.1.5 Erakinaren mantenu jarraitua egiten jarraitzea. | X | X | X | X | Mantenu arduraduna |
| 3.5. Jaiotza-tasaren eboluzioa aintzat hartuz, aurreikuspen plana egitea | 3.5.1. Ikastola jaiotza tasaren bilakaerak sortuko dituen egoeretara egokitzea | 3.5.1.1 Matrikulazio datuetan oinarrituta datozen ikasturteetarako ituenen planifikazioa egitea | X | | | | Zuzendaritza Taldea |
| | | 3.5.1.2 Jaiotza-tasa kontuan izanda, ikastolako pertsonalگو beharrak zehaztea | X | X | | | Zuzendaritza Taldea |

3.- Antolaketa eta egitura

| | | | | | | | |
|--|--|--|---|---|--|--|---------------------------------------|
| | | 3.5.1.3 Ikastolako espazioak jaiotza-tasaren bilakaerak sortutako beharrei erantzuteko egokitzea | x | x | | | Zuzendaritza Taldea Obra Batzordea |
|--|--|--|---|---|--|--|---------------------------------------|

4. Identitatea eta herri-kohesioa lantzea

| HELBURU ESTRATEGIKOA | LAN-ILDOA | EKINTZAK | KRONOGRAMA | | | | ARDURADUNA(K) |
|----------------------------|--|--|------------|----|----|----|-------------------------------|
| | | | 21 | 22 | 23 | 24 | |
| 4.1. Identitatea sendotzea | 4.1.1. Ikastolako identitatearen definizioa eta berari indartzeko estrategiak. | 4.1.1.1. Euskal Herriko Ikastolen hezkuntza ereduarekin bat egite prozesua abiatzea. | X | X | | | Zuzendaritza Taldea |
| | | 4.1.1.2. Erantzukidetasun sozialaren inguruko diagnostikoa egitea eta indartu beharreko eremuetarako ekintzak diseinatzea (ERAKIDE tresna) | | | X | | Artezkari-tza Konte- ilua |
| | | 4.1.1.3. Euskal kulturaren transmisioaren inguruko lanketa egiteko bideak jartzea: hautazko ikasgai bat sortu, zeharlerro gisa jorratu, etapa arteko proiektuak... | | | X | X | Etapetako Arduradunak |
| | | 4.1.1.4. Ikastolaren ibilbidearen berri emateko mahai-ingurua antolatzea. | | | X | | Zuzendaritza Taldea |
| | | 4.1.1.5. Ikasle-ohien sarea sortu eta ekintzak antolatzea. | | X | | | Artezkari-tza Konte- silua |
| | | 4.1.1.6. Kooperatibismoa eta autoeraketaren inguruko sentsibilizazioa ekintzak egitea: guraso eta irakasle berrien harrera-planean integratu, formazioa jaso... | | | X | | Artezkari-tza Konte- silua |

4. Identitatea eta herri-kohesioa lantzea

| | | | | | | | |
|--|---|---|---|---|---|---|-----------------------|
| | | 4.1.1.7. UNESCO eskola izatearen ezaugarriak ezagutaraztea. | | X | | | Zuzendaritza Taldea |
| 4.2. Herriko eragileekin harremanak lantzea. | 4.2.1. Herriko eragileekin proaktiboak izatea. | 4.2.1.1. Urretxu eta Zumarragako kultura eta hizkuntza eragileekin lankidetzan jardutea. | X | X | X | X | Zuzendaritza Taldea |
| | | 4.2.1.2. Etapaka Ikasleek herriko eragileekin elkarlanean proiektuak egitea urtean bat gutxienez, urtez urteko jarraipenarekin. | | | X | X | Etapetako Arduradunak |
| | | 4.2.1.3. Proiektuen ebaluazioa eta jarraipena. | | | X | X | Etapetako Arduradunak |
| 4.4. Kanpo komunikazioa indartzea. | 4.4.1. Kanpo komunikazio antolaketa eta baliabideak eraginkorrako egitea. | 4.4.1.1. Kanpo-komunikaziorako arduraduna izendatzea. | X | | | | Komunikazio Taldea |
| | | 4.4.1.2. Kanpo komunikazio plana diseinatzea (kanalak, mezuak, ...) | | X | | | Komunikazio Taldea |
| | | 4.4.1.3. Webgunea eta sare sozialak eguneratu eta bizirik mantendu. | X | X | X | X | Komunikazio Taldea |
| | 4.4.2. Kanpo komunikazio ekimenen bidez identitatea ezagutaraztea... | 4.4.2.1. Ikastolaren balioekin ardaztuta dauden ekimenen berri eman (bideo-pilulak...) | X | X | X | X | Komunikazio Taldea |
| | | 4.4.2.2. Ikasleek herriko eragileekin burututako ekintzetan komunikazio-plana integratu eta herriari komunikatu. | | | X | X | Komunikazio Taldea |

4. Identitatea eta herri-kohesioa lantzea

| | | | | | | | |
|--|--|---|---|---|---|---|---|
| | | 4.4.2.3. Matrikulazio sasoiak ekintzak egin | x | x | x | x | Zuzendaritza Taldea Komunikazio Taldea |
|--|--|---|---|---|---|---|---|